

BILBON EGINDAKO ITZALDIAK

**Bilbon, Arriaga teatroan Euskaltzaindiak antolatutako
jaialdian egindako itzaldiak**

Bilbon, aurtengo bagillaren amarrean Euskaltzaindiak Arriaga Teatroan jaialdi bat antolatu zuen, dantza, kantu ta teatrozkoa, itzaldi bi ere egin zirelarik. Bezperan batzarra izan zuen bere etxean eta goizean Kalzadetako komentu batean meza bat "Lagunarteko meza" irakurri ta kantaturik.

Ona itzaldiak:

ANTONIO ARRUE JAUNARENA:

Eleiz eta erri-agintari agurgarriak! Jaun-andreak! Jaungoio-koa'k egun on dizuela guzioi.

Poz-pozik etorri gera gaur Gipuzkoa-aldetik Bilbao'ra Mitxelena jauna ta biok. Gutxitan, oso gutxitan ere, aurkeztutzen baitzaigu gure euskalzaletasuna agirian azaltzeko gaurko emengo egokiera au bezalakorik.

Ekin eta yarra!... Ekin eta yarra, dio zeatz eta laburkiro Euskaltzaindia'ren elburu nagusiak. Orain ogei ta amazazpi urte, Euskaltzaindia'ren sortzalleak ekin zioten gure izkuntzaren alde lanari. Baña jarraitu ote diegu guk sortzalle adoretzu aiei bearbezala lan artan? Ez, apika. Urte batzuetan beintzat, ez det esango lo-zorroan baña bai erdi-lotan egon gerala euskaltzaleok, iñork ezin uka.

Euskaltzaindia'ren jaiotza aitatu dedan ezkeru, egoki izango da inñolaz ere, bere zuzendari ta nagusi ainbeste urtetan izan zan Resurrección María Azkue'ri buruz, itz bi, berba bi bederik egitea. Izan ere, ba-alda euskeraren alde ezezik, izkuntza baten alde, egundaño arek aiña lanik egin duanik? Beraz, bidezko izango litzakela derizkiot, euskaltzale guziok eta batez ere zuek, bizkaitarrok, Azkue aundiaren oroimenez alik laisterren jaialdi bat antolatzea.

Baña, noan arira.

Aspaldi ontan, bai Euskalerrria'n eta bai atzerrietan, euskeraren jatorriaz makiñabat mintzatu ta idatzi da. Ta, egia esan, euskera nondik datorren jakin eta erabakitzea, txit ongi iduritzen zait. Baña —len ere bein baño geiagotan esan izan oi det eta—, ez aldu ajola, ardura ta garrantzi aundiagoa, euskera nora, euskera norontz dijoan sumatzeak? Nere uste apalez or dago, egiazki... *untzea*. Bein edo bein euskera ilko balitz, ziur egon, Euskalerrri'ko doai, Euskalerrri'ko onbide ta, era bat esateko, Euskalerrri'ko gauza on guziak, eriotzaren mendean geldituko lirake-ta.

Esan izan oi da, euskerak mirari batez irauten duala. Ta egia da inñolaz ere. Baña, Jaungoikoa'ren beraren mirari batez. Ta ez da arritzekoa, ainbeste Jaungoiko-zaleen ezpanak mendez-mende erabilli duten izkuntza bat, Jaungoikoa'k, gordetzea gura izatea. Baña, mirari onek aurrera jarraitu dezan, bearrezkoa izango degu guk ere zertxobait egitea. Guziok: goikoak eta beekoak, zarrak eta gazteak, gizasemeak eta emakumeak, eta —ondo entzun— batez ere-emakumeak. Zergaitikbait dira emakumeak, eskuarkiro, oiturak eta ekanduak sortzen eta irozotzen dituztenak.

Beraz, dei berezi bat zuzentzen diet lan ontarako emakumei, edota obeto ta zeatzago esateko, etxeoandrei.

Egia esan, egungo egunean, uri aundietan batez ere, etxeoandreak baño kaleko-andreak geiago nabaitzen ditugu. Ta prakadunak ezpadira, gaitz erdi...

Dana dala ta esanak esan, guziok elkarren leian euskeraren alde saiatzen ba-gera, ez dira gure asmoak, antzuak geldituko, ta iraungo du orain arte lez gure izkuntza xar-maiteak, egiztuaz antziñako olerkari baten bertso auek:

Mundu guzi-guzia
 Jakiñean bego:
 Biziko da euskera
 Orain eta gero.

Amaitzeko, beste dei bat. Nori? Ba-aldakit nik neronek? Baña guziok ulertuko dezute noski esaten badet, alegia, legezkoa ta bidezkoa izango litzakela euskeraren aldeko lan ontarako, nor-baitzuk erraztasun geixeago emango balizkiguteke.

Ez dezala iñork kezkarik eduki; ez dezala iñork beldurrik izan. Euskaldunok ez gera eskergabeak.

Jaungoikoa'k egun on dizuela guziori, ta gaizki esanak par-katu.

LUIS MICHELENA JAUNARENA:

Señoras y señores:

Se me ha indicado que diga algunas palabras acerca de los planes y proyectos de la Academia. Mis palabras tendrán necesariamente que ser breves y, sin embargo, no me limitaré a mirar al futuro, sino que abundando en algo que acaba de decir el señor Arrúe, quiero ocuparme por un momento del pasado.

No voy a descubrir ningún secreto si digo que hechos como este hermoso acto, que vuestro entusiasmo y desinterés han hecho posible, no han sido particularmente frecuentes en la vida de nuestra Academia durante los últimos años. Podría, para explicarlo, alegar la excusa habitual en tales casos, y decir que, a pesar del silencio, nuestra labor callada ha continuado sin interrupción en ese tiempo. La excusa no dejaría de ser bonita, pero hablando con franqueza, no creo que podamos sentirnos demasiado satisfechos de lo realizado hasta ahora. Las causas son muchas, y no voy a entrar ahora en su examen: me bastará con señalar un aspecto, porque lo demás es hasta cierto punto externo y accidental. Nosotros, al entrar sucesivamente en la Academia, hemos asumido una herencia demasiado pesada para nuestros hombros. Ni nosotros ni nadie puede olvidar que, aunque seamos nominalmente los sucesores de aquellos grandes hombres que han ilustrado a esta Academia, nuestra sucesión no pasa, en muchos aspectos, de ser meramente nominal.

Y entre esos hombres es obligado mencionar en primer lugar la figura de aquel gran vizcaíno que fué D. Resurrección María de Azkue. Precisamente ocupa un lugar señalado en nuestros proyectos el de un acto de exaltación de su personalidad. Bien merece D. Resurrección que todavía hoy se le dedique un gran homenaje, un homenaje que debemos procurar que no sea del todo indigno de sus merecimientos. La labor de Azkue abarcó,

como es bien sabido, muchos terrenos. El solo realizó lo que en cualquier parte hubiera sido la obra de una generación. El recogió nuestra música y nuestras tradiciones populares, pero sobre todo, él estudió nuestra lengua y, dentro de las muchas obras que a ella consagró, será seguramente la principal una que terminó y publicó siendo aún joven: su gran Diccionario.

Nosotros deseáramos que ese Diccionario que hoy es tan difícil de encontrar pudiera volver a publicarse, en una segunda edición que no sea mera reimpresión de la primera, sino una edición corregida y aumentada. El mismo D. Resurrección nos dejó ya abundante material para los aumentos y correcciones en un ejemplar del Diccionario anotado de su propia mano, y otros también han aportado elementos. Este proyecto, esta nueva edición del Diccionario, sería probablemente el mejor homenaje que podríamos rendir a su memoria. Y presenta todas las ventajas, sin más que un solo inconveniente. Hablábamos de ello precisamente ayer, en la reunión de la Academia, y se hizo un pequeño presupuesto, calculado muy por encima, de lo que podría costar, sin la impresión, la labor preparatoria de esa edición. La cifra que se obténia, prefiero no mencionarla, porque podría resultar aterradora.

Esta labor que la Academia desea continuar en la medida de sus posibilidades, este trabajo de conocimiento e investigación de la lengua, no supone el menor exclusivismo. No es que nosotros consideremos que la lengua vasca, su léxico y su gramática, son patrimonio nuestro, de la Academia. Afortunadamente, los objetos del espíritu, a diferencia de los materiales, pueden ser poseídos por cuantos poseedores se quiera: no pierden nada con ello, sino que su valor aumenta con el número de poseedores. Esta Academia desea seguir trabajando, como ha trabajado siempre en lo posible, en estrecha colaboración con cuántas personas y entidades, propios y extraños, se interesen en uno u otro sentido por nuestra lengua. Es más, el cariño que nos inspira el trabajo de los demás crece posiblemente con la distancia: son precisamente aquellas personas que al parecer tienen menos razón natural para interesarse por nuestras cosas las que, por una reacción espontánea de agradecimiento, despiertan nuestra más íntima simpatía. Y, entre las entidades con las cuales deseamos trabajar en colaboración, figuran en primer lugar aquellas que cuentan entre sus finalidades el estudio de la lengua vasca: la Junta de Cultura de la Excm. Diputación, con la cual tiene la Academia tantos motivos de agradecimiento; el Centro de Estu-

dios Vascos de la Jefatura Provincial del Movimiento, el Laboratorio de Investigación Vascongado, para no mencionar más que las de Bilbao.

La Academia, como es bien sabido, no se propone tan sólo estudiar el vascuence: tiene también asignada una misión tutelar, de protección de la lengua vasca. No nos interesa únicamente su conocimiento: nos interesa en primer lugar su existencia, su presencia viva. Desgraciadamente, y casi por definición, el papel de la Academia en este orden de actividades no voy a decir que sea pasivo, pero al menos no es exactamente impulsor: no es el motor que necesita la lengua para conservar y robustecer su vitalidad. La Academia, por su misma naturaleza, es más bien un organismo director. Todos sabemos cuál es y debe ser el motor. Ese motor somos todos, somos vosotros y nosotros, los que nos hemos reunido aquí y los que no están aquí corporalmente presentes. De este entusiasmo que tan hermosos frutos ha producido el día de hoy podemos esperar mucho para el futuro. La Academia sólo puede prometer que hará lo posible para mantenerse a la altura de vuestro entusiasmo.

Todos sabemos o creemos saber que las condiciones de la vida moderna, de la vida actual, no favorecen la variedad; se dice a menudo que ciertas reliquias del pasado están condenadas a desaparecer. Sería temerario, y no conduciría más que a resultados lamentables, el obstinarse en negar los hechos. La Historia es cambio y para sobrevivir hay que saber ajustarse a las nuevas condiciones de vida. Sin embargo, del mismo modo que una familia no es en buena parte tal sino en la medida en que conserva la tradición, los usos y modos que han ido transmitiéndose de padres a hijos, y cuando se abandona esa tradición sin otro fin que el de estar al día, no se produce otra cosa que gentes sin ser ni consistencia, así nosotros, si abandonáramos o pusiéramos en peligro algo que nos viene de muchas generaciones atrás, algo que precisamente porque no se puede ver o tocar tiene un valor muy superior a cuanto de material pueda producir el hombre, cometeríamos, como decía ayer Irigoyen, una especie de suicidio colectivo, o por lo menos de automutilación. Poseemos algo cuyo valor, por tratarse de un hecho cotidiano y consabido, no apreciamos en su justo valor, sobre todo en estos días en que sólo nos sentimos inclinados a dar valor a lo que entra por los sentidos. Pero, si hoy no valoramos debidamente este bien espiritual que no sabemos muy bien por qué,

por una tenacidad inexplicable de la que no hay otro ejemplo en la Europa occidental, ha llegado vivo hasta nosotros, lo apreciaríamos el día en que lo hubiéramos perdido ó cuando, puesta en peligro su existencia, viéramos que se extinguía la esperanza de conservarlo vivo y presente.

2. Lanak Euskaltzaindira bialdu bear dira, Gipuzkoako Diputaziora, 1959 agustuaren 20-an baiño leen, makiñaz idatzirik eta lerro-une bat utzirik. Lema batekin firmatu bear dira eta lemaren giltza sobre itxi batean bialdu.
3. Batzarrea Euskaltzaindiak izendatuko du.

**«LORAMENDI» FR. JOAQUIN BEDOÑA-KOAREN GORAZARREZ
EUSKALTZAINDIAK ANTOLATUTAKO LITERATURA-SARI-
KETAREN ERABAKIA**

«Donostian bildurik Aita Joakin Bedoña-koaren gorazarrez jarri zan literatura-sariketarako Euskaltzaindiak izendatu zuen batzarrea, ao batez erabaki da:

Poesia.—Lendabiziko saria, bi milla pesetakoa, «Maldan behera» poemari ematea. Egillea Gabriel Aresti (Bilbo); bigarrena, milla pesetakoa, «Lelo xamurrak» Fr. Victoriano Gandiaga-k (Arantzazu) egindakoari; bosteun pesetako sari bi urrengo jaun auk bialdu dituzten poesia: Fernando Artola «Bordari» (Ondarrabia) eta Aita Policarpo Iraizoz-koa (Erroma).

Itz lauz.—Lendabiziko saria, milla pesetakoa, «Loramendi eta bere garaiko euskal-literaturaz» egindako lanari. Egillea Luis Jauregui jauna (Zarautz); bigarren saria, bosteun pesetakoa, Aita Julian Iyorre-koak gai bera duela bialdutako lanari.

Teatroa.—Lendabiziko saria, bi milla ta bosteun pesetakoa, «Kanpaien atsekabez» tituludun lanari, Eusebio Erquiaga-k (Bilbo) bialdua; bigarrena, milla ta bosteun pesetakoa, «Leniz'ko alaba» Jose Antonio Arcocha Martija-k (Ondarru) bialdutako lanari.

Batzarreak bere poz aundia jakinerazi nai du artu diran lan ugari eta ederrengatik, batez ere poesia arloan. Irurogeitik gora dira. Sarituez gaifera uste du aipamen berezi bat merezi dutela urrengo poesia auk: «Izar eta odei» Antonio Bilbao (Morga), «Sei olerki» Jaime Querexeta (Elorrio), «Lizardi-renean» J. Ignacio Goicoechea (Tolosa), «Egun txintatik arratseraño» A. Eusebio Igarza, O. S. B. (Lazkao), «Bedoña'rako osto bikoitza» Eusebio Erquiaga (Bilbo), eta baita teatro lan bi auk; «Bertsolari sariketa» eta «Berpizkunde goizean», biak Manuel Zirasolo-renak (Bilbo).

Donostian, 1959 irailaren 13-an. Firmatzaillak: Jose Maria Lojendio, Antonio Arrue, Aingeru Irigaray eta Luis Michelena.»

EUSKALTZAINDIAK URTERO EGIN OI DUEN JAIALDIA

Ilbeltzeko 4-an Euskaltzaindiak Bilboko Arriaga Teatroan urtero bezela jaialdi bat egin du, sarrera bakar bat ere gelditu etzelarik salgai eta gaifera jente asko ta asko ikusi gabe. Oraingoan euskaldun guztien begien bistan jarri nai izan du bertsolariak, euskal-teatroa eta euskal-kantak izkuntza indartzeko eta sendotzeko bide oso onak dirala. Eta badirudi asko aurreratu dala. Ain zu-

zen ere, aurrera dijoaz erri askotan uste eta asmoak, eta ori da bear dana gure nortasuna geroago ta aundiagoa izan dedin.

Bertsolariak izan ziran bertso bana kantatuz jai idigi zutenak. Dotore zeuden Euskaltzaindiaren ezkutuaren azpian joan dan mendeko erropakin jantzita, kapela ta guzti. Guztiz iru izan ziran, igaz agustuan Bizkaiko txapeldun gelditu ziran irurak. Gero Ondarrutarrak «Seaska inguruan» eman zuten, gabeton kutsuko obra eder eta nagusi bat. Ia eun ondarrutarrek parte artu zuten eta ikusle-entzuleak arrituta gelditu ziran aien biotz fiafia ta dotorea eta aien batasuna ikustean. Txinpartako eta Dindirrikoen artean Zuberoako dantzak aurkeztu zituzten. Mungiaokoak «Eguen zuri» obra labur bat, baiña nola aurrak ere parte artzen duten eta gaira eskola bat ere agertu, euskeraz itz egiten dutelarik aurrak, oso pozik eta gustura ikusi zan. Eta egin ere oso ongi eta naikoa barre eragifnik egin zuten. Eta azkenez Iruñeko Koral Kamarakoak amar kanta Euskalerriko eskeifii zituzten. Munduan zear fama aundikoa degu koral eder au eta Bilbon ere arrakasta aundia izan du eta jaialdi osoari giro dotore eta aristokraziaako bat kutsatu zion.

Uste degu geroago ta geiago jarraituko dala beste erri batzuetan ere Ondarruko eta Mungiaokoak eta baita besteak erakutsi diguten bide ederra. Baldin orrela bada ez izan dudarik batere gure nortasuna benetan sendotuko dala.

EUSKAL-KONZERTU NAGUSI BAT BILBON

Arriaga Teatroan otsaillaren 22-an euskal-konzertu nagusi bat eman zan. Aita Madina ofñatiarraren obrak jarri ziran J. Maria Gonzalez Bastida jaunak zuzendurik. I. Orreaga. II. Aita gurea. III. Illeta. Eta bigarren partean: Arantzazu. Parte artu zuten: Bilboko Orkestak, Ofñatiko Schola Cantorum Santa Cecilia-k eta Donostiako Stella Maris-ek, guztiz eun eta berrogetaamar boz inguru. Teatroa oso beterik zegoan eta txalo ugari entzun zuten jotzaille ta kantariak, eta batez ere Aita Madina autoreak. Bilboko alkate Zuazagoitia jauna ere entzule egon zan eta autoreari bere aldamenara dei egin zion. Bukieran jentea txaloka asi zitzaion autoreari, eta «Aita Gurea» berriz jotzeko eskatu zan ixiltasun aundi baten erdian bigarren aldiz entzunik.

BERMEOKO JAI

Otsaillaren 10-ean Bermeoko Ercilla Saloian euskal egun bat egin zan, jaialdi bikoa, bata arratsaldean eta bestea gabean. Leendabizi itz batzuek esan zituen Irigoyen jaunak, eta urrengo Ormaeche eta Pujana bertsolariak ekin zioten. Gero Robles Aranguiz anaiak, Mungiaoko teatrulariak, eta Basurtuko kaputxinoetako taldeak. Auek dantza ederrak eskeifii zituzten irudi txukun batzuetan, ipuin eta oitura zaarrez ongi kutsatuak. Ona emen Irigoyen-en itzaldia:

Aitzaki au aterako didazute: Izan ere, erderaz gereganatu dugu gure kultura guztia-ta. Ez dizuet nik ori ukatuko; konprenitzen dut orren sakona eta zabala. Baiña orrekin ez dugu ezer egiten. Emen erabaki egin bear da, erabaki. Guztiz konprenigarria da aitzaki ori; baiña gaitz orixe ari zaigu gure Euskera maitea ondutzen. Orren erremedioa, herriz, auxe baiño ez da; gure buruko gogoetak agertzeko, gure animaren dardar eta zirrarak azaltzeko, gure nortasuna adierazteko, Euskera nai ta naiezko biurtzea. Eta ori, ez zerbait idatzi edo argitara bear dugunean bakarrik; geron barruan ari geranean ere bai, eta orduan are geiago gaiñera. Gure Euskerak nortasunik izango badu, barrungo nortasun ori bear du batez ere. Ori egiten ez dugun bitartean, eskapareteetan ikusten diran maniki oien soñekoa bezelaxe izango dugu Euskera: gizonik gabeko jantzia, saloietako edergarria, museoetako pitxia: aspaldi bateko euskaldunek itz egin izan omen zuteneko izkuntza zaar bat. Alperrik dugu, Euskera biotzez maite dugula esatea; alperrik dugu, gizonen aurrean itxura eta plantta egitea. Euskera orri gure anima ematen ez badiogu, Euskera orri gure adimenean zuztarrak ematen ez badizkiogu, gizonaren gorputzari jasotzen zaiona berberaxe gertatuko zaio: anima kendu, eta il.

Aita San Prantzisko Xabier'koaz kontaktzen dan gertaera auxe datorkit burura. Ba omen zegoan ilzorian Aita San Prantzisko, eta sukarrak ezaguera kendu zionean, euskeraz itz egiten asi omen zan, ingurukoak zearo arrituta utzirik. Bera konturatu ere egin gabe, euskeraz egiten zion ari bere animak. Nik ere orixe atera nai nuke nere itzokin euskaldun guztion asmoetatik: izan gaitzezela danok euskerazko euskaldun, ez kanpoan eta bai biotzean. Egin dezaogun euskeraz geron buruari; bizi ditzagun euskeraz gure biotzaren kezka eta miñak, txerta dezaogun Euskera geron bizitzari. Ori egiten badugu ez da igartuko gure izkera maitea; euskaldun izango da arbola, eta euskerazkoak bere fruituak. Eta barrua betea badaukagu, gure bizitza mardula bada, jatorrak eta bikaiñak izango dira gure fruituak ere, gaur ospatzen dugun Eusebio Erkiaga Jaunarenak bezelaxe.

Naiko motel esan badizuet ere, erakutsi auxe ekarri dit gogora benetako euskaldun jator onen euskal-obrak. Gora bat gure ama Euskerari, eta zorionak Eusebio Erkiaga Jaunari.

Agur.

A. Fernando Mendizabal
(Arantzazu-ko praillea).

EUSKALTZAINDIAREN JAIALDIA

Urtero bezela, aurten ilbeltzaren 10-ean egin zan Arriaga Teatroan. Parte artu zuten: Gipuzkoako ta Bizkaiko bertsolari txapeldunak, Uztapide eta Embeita, bigarrenak, Michelena ta Azpillaga, eta Basarri guztien nagusiak; Elgoibarko teatrogilleak Aitona ta Billoba V. Garitaonandiaren obra eman zuten; eta San Anton Orfeoiko kantariak sei kanta Euskalerriko eskeiñi zituzten. Jentez guztiz beterik egon zan Teatroa eta gustura atera ziran guztiak.

Txalo bat oneeri, eta euskeraz ikasten alegintzen direan Ondarruko neska-mutil danairi.

Amaitu dot.

* * *

Gero Alfonso Irigoyen jaunak bana banaka dei egin zien esamiñetan parte artu zuten guztiai eta sariak eman ziran. Lendabiziko saria amabi urtetik gorakoen artean Garbiñe Echaburu-k irabazi zuen. Bizkaiko Diputazioko buruzagiak emandako luma eder bat artu zuen beste sari batzuen artean.

Gasztegoen artean Koldibika Echaburu-k irabazi zuen. Beste sari berezi batzuek ere eman ziran Ondarroa-ko eta gabonetako kantak ondoen kantatzen zituztenentzat, eta arlo bi orietan Javier Azpiri-k irabazi zituen lendabiziko graduak. Diputazioak eta Ondarroa-ko Ayuntamentuak eman zituzten sariak. Ondarrrutar batzuen artean ere bildu zituzten dirua eta euskal-liburuak aur esamiñatuen artean emateko, beren borondatea erakutsirik. Aur guztiak jaso zuten bakoitzak bere saria. "Pan Pin" tebeoa ere danak artu zuten eta beste batzuen artean ere zabaldu zan. Markiña-ko Ayuntamentuak kopa bat eman zuen Ondarroako Ume Kantarientzat, Bilbon ain ondo kantatu zuten kantari txiki-entzat, eta aurrik gazteena joan zan kopa artzera txalo beroen artean.

Aur batzuek esamiña egunean egindako ipuiña irakurri zuten.

Sariak eman ondoren Quadra Salcedo jaunak itz egin zuen Bizkaiko Diputazioaren izenean. Esan zuen asko sentitzen zuela euskeraz ezin egin izatea aspaldian euskera galdu dan Bizkaiko partekoa dalako. Berari gertatu zaiona gertatu eztedin gurasoakandik seme alabakana izkuntza gauza bikain bat bezela gordetzeko eskatu zuen. Seme alabai gurasoakandik artutakoa emateko. Gaiñeratu zuen borondate firme bat dagoela euskal-izkuntza beti izan dana izan dedin lan egiteko.

Bukatzeko Ondarroako Ume Kantariak euskal-kanta batzuekin eztitu zituzten entzuleen belarriak.

BILBON PRESTATUTAKO JAIK

Bilboko Capitol-ean 1961 urtarrillaren 6-an eta Arriaga Teatroan 29-an jai bi egin ziran Euskaltzaindiak antolatuta.

Lendabiziko egunean Donostian Euskalerriko txapelketan parte artu zuten bederatzi bertsolariak aritu ziran. Juan Perurena nafarra gexorik etxean gelditu baitzan bere ordez Bautista Madariaga etorri zan. Capitol-a beterik eta jentea gustora.

Bertsolarien saioa asi aurretik 1960 garagarillaren 2-an esamiñatu ziran Bizkaiko neska mutillai sariak eta diplomak partitu zitzaizkien, eta Valentin Embeita bertsolariak ere kantatu zuen.

Bigarren egunean Ondarroako teatro-taldeak "Kresaletan" Agustín Zubizaray-ren obra eman zuen Gregorio Solabarrieta-ren musikarekin. Orkestra ta koruak musikaren autoreak berak zuzendu zituen. Txalo ugari irabazi zuten publiko gustora zegoenagandik.

BILBON PRESTATUTAKO JAIA

1962 urtarrillaren 7-an Euskaltzaindiak Bilboko Arriaga Teatroan urteroko jaialdia antolatu zuen. Goizeko amaikak eta laurenetan teatroa jentzez beterik zegoela Ondarroako Ume Kantariak, Imanol Oruemazaga apez gaztea zuzendari zala, kantatu zuten lendabizi. Gero Mirentxu Moraiz anderañoak Lizardi-ren azken poesia esan zuen. Eta Tolosa-ko Lizardi teatro-taldeak Toribio Alzaga-n "Osaba", iru ekitalditako teatro-lana, eman zuen. Bukaera Ondarroako Ume Kantariak. Publikoa gustora.

pánicas antiguas. Lo que se conoce hoy acerca del ibérico y del celtibérico. Coincidencias aparentes entre ibérico y vasco: posibilidades de explicación."

1963 urteko azaroaren 5-ean Jose M.^a Busca Isusi jaunak leku berean "Análisis de la llamada cocina vasca" gaiaz.

1963 azaroaren 12-an Antonio Arrue jaunak. Titulua "Cuatro poetas vascos actuales". Aita Xabier Diharce "Iratzeder", Jean Mirande, Aita Gandiaga eta Gabriel Aresti euskal poetak dira estudiatu zituanak.

1963 abenduaren 30-ean Florentino Castaños jauna aritu zan "Apologistas vascos: Larramendi y Astarloa" gaiaz.

BIZKAIKO NESKA MUTILLEN EUSKAL ESAMIÑAK

1962 garagarrillaren 28-an egin ziran Euskaltzaindiak antolatutako neska mutilen euskal esamiñak Indautxu-ko Aita Jesuiten kolejoan. Ogetaamazazpi neska mutil aurkeztatu ziran guztiz Iyorrreta, Mungia, Laukiniz eta Bilbokoak. Nagusiagoen artean Kristina Mardaras Iyorrreta-koak irabazi zuen saririk aundiena eta txikiagoen artean Maria Teresa Zugazartaza Iyorrreta-koak. Sariak 1963 ilbeltzaren 13-an partitu ziran Arriaga Teatroan.

1963 urtean ere leku berean esamiñatu ziran garagarrillaren 27-an eta irurogei neska ta mutil aurkeztatu ziran Iyorrreta, Laukiniz, Mungia eta Bilbokoak.

EUSKALTZAINDIAREN JAIA BILBON

Aurreko urteetan bezela 1963 ilbeltzaren 13-an egin zan Arriaga Teatroan. Lendabizi aurreko urtean esamiñatu ziran aurrai sariak eta diplomak eman zizkien Eusebio Erkiaga eta Alfonso Irigoyen jaunak publikoaren txaloen artean. Gero "Danak bat" alkartadeko artista talde Mungia-koak Manuel Ziarsolo "Abeletxe"-n obra bat eman zuen bi ekintza eta lau irudikoa. Mungia-ko Orfeoiko talde aukeratu batek ere parte artu zuen Jose Maria Arregi apez jauna zuzendari zala eta baita Bilboko Dindirri euska! dantza taldeak ere.

karien klasean ari diranentzat, eta Xenpelar sariak bertsolarien klasekoentzat ornituko ditu.

Bertsolarien klasean ari diranentzat ipintzen diran poesia-sarien oiñarriak dira:

a) Sariak izango dira: 1. Bi milla pezeta; 2. Milla ta bosteun pezeta; 3. Milla pezeta; 4. Bosteun pezeta.

b) Urtearen barruan argitaratutako bertso papelik onenak sarituko dira. Bertso-papel inprimatuaren amar ale bialdu bear dira Euskal Akademiara (Ribera, 6, Bilbao). Bialtzeko epea 1965 azaroaren 20-an bukatzen da.

d) Gaia libre.

e) Bertso-papela argitaratzen danean, eta jakiteko zein dan bertsolari egillearen izena, "Bertso berriyak urliyak jarriyak" edo beste alako zerbait ipiñi bear da aspaldiko oiturari segituaz.

f) Juzgua emango duen juradua Gipuzkoako Aharro Kaxa Probintzialak izendatuko du Euskal Akademiaren eskabidez.

EUSKALTZAINDIAREN JAIA BILBON

1964 ilbeltzaren 26-an Bilboko Arriaga Teatroan Euskaltzaindiak urtero egin oi duen jaia egin zan. Ondarruko teatro taldeak Agustin Zubikaray-k osatutako "Seaska inguruan" obra jokatu zuen.

Aurreko urteko garagarnillaren 27-an Bizkaiko neska mutillen artean egin ziran euskerazko esamiiñen sariak partitu ziran.

BILBON "XXVII CONGRESO LUSO-ESPAÑOL PARA EL PROGRESO DE LAS CIENCIAS"

1964 uztailaren 20-tik 24-ra egin ziran batzarreak eta euskerari buruzko estudioak ere izan zuten bere atala. Bakoitzak bere lanarekin parte artu zuten: Luis Mitxelena, zuzendari bezela, Aita Luis Villasante, Juan Bautista Merino Urrutia, Manuel Agud, Santos Pagadigorria, Florentino Castaños eta Alfonso Irigoyen-ek.

DOMINGO AGIRRE JAIO ZALA EUN URTE

Ondarrun Euskaltzaindiak batzarre agiri bat egin zuen 1964 maiatzaren 7-an Domingo Agirre jaio zala eungarren urtea ospatzeko, Alameda Zinean, publikoa aurrean zala. Alfonso Irigoyen jaunak eman zion asiera itz batzuekin eta ondoren itzaldiak egin zituzten Eusebio Erkiaga, Nemesio Etxaniz eta Ani-